- **NON/EZEN EGITURAK EGINEZ ELKAR ITZAZU ESALDIOK:**

1. Oso nekatuta geunden; larunbat gauean etxean geratu ginen.
2. Azterketa oso zaila izan zen; bukatutakoan pikutara bidali nuen irakaslea.
3. Pasteltxo asko jan zenituen; tripako minez pasa zenuen gau osoa.
4. Krisia oso handia izan zen; langile asko kale gorrian geratu ziren.
5. Gezur asko esan dituzu; ni ez naiz zutaz fidatzen.
6. Haize gogorra zebilen; nahigabea iragartzen zuela zirudien.
7. Poz-pozik nengoen egun hartan; ez nintzen lanera joateaz gogoratu.
8. Gaur asko edan du Manuk; etxeraino eraman behar izan dugu.
9. Tarta hura oso handia zen; hamar pertsonen artean jan behar izan genuen.
10. Koadro hura oso garestia zen; bizitza osoan irabazitakoarekin ere ez zenuke erosiko.
11. Aurten trafiko-istripu asko gertatu dira; gidatzea debekatuko dute.
12. Liburu asko irakurri zituen gizajoak; bere lagunak ere ez zituen ezagutzen.
13. Oso berandu iritsi ginen zinemara; pelikula bukatu zen.
14. Jon oso lodia da; ez da kotxe txikietan sartzen.
15. Oso handia zen lakua; erdian ez zen hertzerik ikusten.

NON/EZEN ERABILI GABE, ITZULI ESALDIOK:

1. Sabes tanto que será mejor que los demás nos callemos.
2. Tengo tanta hambre que me comería un buey.
3. Hablaba tan bien que dejaba a todos boquiabiertos.
4. Soy tan rico que trabajo para no aburrirme.
5. Tenía tantas ganas de verte que me he olvidado de todo lo demás.
6. Eres tan tonto que hasta los locos se ríen de tí.
7. Este palacio tiene tantas habitaciones que hay veces que me pierdo.

ERANTZUNAK:

1. Hain nekatuta geunden, non/ezen larunbat gauean etxean geratu ginen/baikinen.
2. Azterketa hain zaila izan zen, non/ezen bukatutakoan pikutara bidali nuen/bainuen irakaslea.
3. Hainbeste pasteltxo jan zenituen, non/ezen tripako minez pasa zenuen/baizenuen gau osoa.
4. Krisia hain handia izan zen, non/ezen langile asko kale gorrian geratu ziren/baitziren.
5. Hainbeste gezur esan dituzu, non/ezen ni ez naizen/bainaiz zutaz fidatzen.
6. Hain haize gogorra zebilen, non/ezen nahigabea iragartzen zuela zirudien/baitzirudien.
7. Hain pozik nengoen egun hartan, non/ezen ez nintzen/bainintzen lanera joateaz gogoratu.
8. Gaur hainbeste edan du Manuk, non/ezen etxeraino eraman behar izan dugun/baitugu.
9. Tarta hura hain handia zen, non/ezen hamar pertsonen artean jan behar izan genuen/baikenuen.
10. Koadro hura hain garestia zen, non/ezen bizitza osoan irabazitakoarekin ere ez zenukeen/baitzenuke erosiko.
11. Aurten hainbeste trafiko-istripu gertatu dira, non/ezen gidatzea debekatuko duten/baitute.
12. Hainbeste liburu irakurri zituen gizajoak, non/ezen bere lagunak ere ez zituen/baitzituen ezagutzen.
13. Hain berandu iritsi ginen zinemara, non/ezen pelikula bukatu zen/baitzen.
14. Jon hain lodia da, non/ezen ez den/baita kotxe txikietan sartzen.
15. Hain handia zen lakua, non/ezen erdian ez zen/baitzen hertzerik ikusten.

1. Hobe dugu denok isuldu, hainbeste dakizu zuk. (edo alderantziz)
2. Idia ere jango nuke, hain gose naiz. (edo alderantziz)
3. Denak aho bete hortz uzten zituen, hain ondo hitz egiten zuen. (edo alderantziz)
4. Ez aspertzeko lan egiten dut, hain aberatsa naiz. (edo alderantziz)
5. Zu ikusteko hain gogo handia neukan, beste guztia ahaztu dut. (edo alderantziz)
6. Eroek ere zutaz barre egiten dute, hain ergela zara. (edo alderantziz)
7. Batzuetan galdu egiten naiz jauregi honetan, hainbeste gela ditu. (edo alderantziz)